



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

GURE ETXEAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA
(NAO 89 zbk, 2003ko uztailak 11, NAO 116 zbk, 2005eko irailak 28, eta NAO 20 zbk, 2015eko urtarrilak 30)

I. KAPITULUA. Definizioa

1. artikulua. Gure Etxea Udalarena da eta Altsasuko Udala arduratzen da haren erabileraz. Jendea topatzeko eta biltzeko gunea da, eta Altsasuko esparru soziokulturala dinamizatzea du helburu.

2. art. Altsasuko Udalaren osoko bilkurak eta Altsasuko alkatetzak Kultur Batzordeari edo Kultur Batzordeko burua den zinegotziari eskuordetzen ahalko dizkiete kultur guneko jarduera, ikastaro eta ikuskizunak antolatu, kudeatu eta jarraitzea dela-eta dituzten eskumenak. Eskuordetze erabakian bertan zehaztuko dira nondik-norakoak.

3. art.

1. Gure Etxea ez da izanen Altsasuko ezein talderen egoitza, eta hango gelak ez dira sekula ere taldeek bakarrik erabiltzekotzat joko.

2. Dena den, onura publiko edo interes sozialeko arrazoiak badaude, Udalak elkarte bati bertako lokalak utzi ahalko dizkio, bertan bilerak, batzarrak edo hare helburu sozialen inguruko jarduerak egin ahal izateko, adosten diren ordutegi, egutegi eta bestelako baldintzetan. Aipatu onura edo interesa lankidetzaz hitzarmen batean azalduko dira, Udalak eta elkarteak sinatuko dutena. Lagapenak ez du inolaz ere ekarriko erabilera pribatibo eta eskusiboa

II. KAPITULUA. Arau orokorrak

4. art. Gure Etxean, pasilloa kenduta, gainerako gela guztietan ezin izanen da erre.

5. art. Ezin izanen da jan Gure Etxeako gela bakar batean ere, Kultur Batzordeak baimendutako egoeretan izan ezik.

6. art. Animaliak sartzea debekatuta egonen da kasu guztietan.

7. art. Aretoetan, jarduerak egin ahal izateko gauzak egonen dira bakarrik, eta, beharrezkoa dela uste bada, erakusgai diren materialak kendu eginen dira.

8. art. Zertarako eskatzen diren aretoak, horretarako erabiliko dira eta ez beste ezertarako.

9. art. Gure Etxea erabiltzen duten taldeek eta lagunek konpromisoa hartuko dute, instalazioetan diren ondasun higigarri zein higiezinak zaintzeko.

10. art. Ezartzen diren ordutegiak begiratu eginen dira.



11. art. Aretoa txukun eta garbi utziko da erabili eta gero, beste eskatzaile batzuek jarraian erabiltzeko moduan.

III. KAPITULUA. Ordutegia

12. art. Honako ordu hauetan egonen da Gure Etxea irekita:

- Irailetik abuztura bitarte:
Asteartetik ostiralera: 17:00etatik 21:00etara.
Astelehenean: itxita.
- Abuztuan: itxita.

Altsasuko Udalak ordutegi hori aldatu ahalko du, antolatzen diren jarduerak dituzten beharrak kontuan izanik.

IV. KAPITULUA. Jarduerak

13. art. Gure Etxeako geletan hainbat jarduera gauzatu ahalko dira. Funtsean, honako hauek:

- Bilerak puntualak, udal zerbitzuek eskatuta edo elkarte zein taldeek galdatuta.
- Ikastaroak/lantegiak.

14. art. Auzokoen, sindikatuen edo alderdi politikoaren bilerak edo ekitaldiak ere egiten ahalko dira, aretoak erabiltzeko moduan diren orduetan.

15. art. Entitateek edo partikularrek instalazioak erabiltzeko baimenak beti egonen dira Udalak antolatu edo babesten dituen jardueren menpe.

V. KAPITULUA. Erabiltzaileak

16. art. Gure Etxeako aretoak baliatzen dituzten elkarteak edo taldeak dira erabiltzaileak.

17. art. Hauek dira erabiltzaileen betebeharrak:

- Gelaren erabilera eskatzeko idazkia betetzea.
- Gure Etxeako giltzak Iortia Kultur Guneko atezaintzan hartzea eta uztea, gorago aipatutako ordutegian.
- Ezarritako ordutegiak begiratzea.
- Aretoa hasieran bezala uztea, txukun eta garbi; erretzea debekatuta dagoen guneeetan ez erretzea, eta paperontziak eta hautsontziak erabiltzea.
- Utzi zaien azpiegitura era egokian baliatzea.
- Bertan diren altzariak zaintzea eta egokiro erabiltzea.
- Iortia Kultur Guneko langileek esandakoa egitea, haiek oharrik eginez gero.



VI. KAPITULUA. Erabilera: uzteko eta erabiltzeko irizpideak

18. art. Gure Etxeako espazioak uzteko, baldintza hauek ezarri dira:

- a) Jarduera egin baino hiru egun lehenago, eskabide idatzia aurkeztea, Gure Etxean horretarako diren inprimakiak erabilita.
- b) Ordenantza honetako 17. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzea.

19. art. Adjudikatzeko orduan, lehentasuna izanen dute Altsasun kokatu eta antolatutako elkarte eta taldeek.

20. art. Kultur Gunearen erabilerari dagokion arlo ekonomikoan, Udalak baimentzen dituen doako erabilera kasuetan izan ezik, ordainduko dira kasuan kasuko ordenantza fiskalean aipatzen diren tarifak.

VII. KAPITULUA. Zehapenak

21. art. Erantzukizunak, arau-haustek eta zehapenak.

Erabiltzaileek erantzun beharko dute, maltzurkeria edo utzikeria direla medio bertan eragindako kalte eta galerengatik.

Erabiltzaileak bat baino gehiago badira, denek elkarrekin eta solidarioki ordainduko dituzte bai tasak, bai aretoetan, instalazioetan eta bertan dauden ondasunetan egiten dituzten kalteak eta galerak, bai ezartzen zaizkien zehapenak, halakorik bada.

22. art. Honako hauek arau-haustek izanen dira:

- a) Udalaren baimenik gabe joan eta gelak hartzea.
- b) Aretoetan, instalazioetan, ekipoetan eta erabilitako geletako ondasun higigarrietan kalteak egitea.
- c) Eraikinean sartzeko giltzen kopiak egitea Udalaren baimenik izan gabe.
- d) Eraikinean sartzeko giltzak ez itzultzea jarduera bukatu eta gero.

23. art. Espazioak behar ez den bezala erabiltzea eta 17. artikuluan xedatutakoa ez betetzea, kanpora botatzeko arrazoia izaten ahal da.

24. art. Aurreko artikuluetan xedatutakoaren ondoriozko zehapenak jarriko dira kalte-galerengatik bidezkoa gertatzen den ordaindu beharrekotik aparte.

25. art. Aurreko artikuluetan aipatutako erantzukizun eta zehapenak bide exekutiboaren bitartez gauzatu eta betearaziko dira.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.- Ordenantza osoa edo haren zati bat aldatzeko, Kultur Batzordea biltzeko deia eginen da, testua aldatzeko asmoaren berri emanda dei horretan bertan. Agertzen diren kideen bi herenek eman beharko dute aldeko txostena.

Bigarrena.- Ordenantza hauetan aipatzen ez diren kasuetan, Kultur Batzordeak hartuko du erabakia.